

HEZKUNTZA IKUSKARITZA

KANPO EKIMENA BATZORDEA

COMISIÓN DE ACCIÓN EXTERIOR

4

UZTAILA 2018

¿BA- DAKIZU...

...zein izan
zen ikaste-
txeen ebalua-
zioari bu-
ruzko jardun-
aldien edu-
kia?

...zer ondorio
edo gogoeta
eragin zituz-
ten?

...zein izan da
jardunaldi ho-
rien balora-
zioa?

EDUKIA:

- 1- AGURRA
- 2- PRESTAKUNTZA
JARDUNALDIEN EGI-
TARUA
- 3- TXOSTENGILEAK
ETA TXOSTENEN LA-
BURPENA
- 4- MAHAI INGURUA
- 5.- HARREMANETA-
RAKO

AGURRA

Lankide agurgarriok:

Kanpo Ekimena Batzordean opor aberatsak eta probetxugarriak pasatuko zenituztelakoan gaude.

Buletinaren ale berri honekin, 2017-2018 ikasturteari bukaera eman nahi diogu. Ale honetan, joan den hilean Bilbon eginiko jardunaldien edukiaren laburpena aurkezten dizuegu. Hitzaldiak, sailburuaren eta sailburuordearen aurkezpen guztiak eta mahai-ingurua ikuskaritzaren "R" barne-karpetan (itzulpenak barne). Halaber, karpetan horietan bertan begiratu ditzakezue hizlariak eman ziguten materiala (powerpointa).

Espero dugu Kanpo Ekimeneko taldeak komunikatzeko aukeraturiko bide honek denontzat baliagarria jarraituko duela izaten burutu ditugun jardueren berri zehatza jaso eta haien edukiei buruzko lehen eskuko informazioa biltzeko.

Komunikatzeko bide hau erabiltzen jarraitzeko asmoa dugu (baita beste batzuk ere, hala nola, lurralde bakoitzeko zonalde-bilerak) egiten ari garenaren berri izan dezazuen eta zuen ideia eta iradokizunak jasotzeko.

Ikasturte hasiera ona opa dizuegu.

Jose Angel Ayucar, Ikuskari Nagusia.



2- PRESTAKUNTZA JARDUNALDIEN LABURPENA

Ekainaren 7an eta 8an ikastetxeen kanpo-ebaluazioari eta autoebaluazioari buruzko prestakuntza jardunaldiak egin genituen.

Ostegunean, hilak 7, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko sailburuak jardunaldiei hasiera eman ondoren, KRISTIN HOLLOK, Estoniako Hezkuntza Ministerioaren Kanpo Ebaluazio Saileko arduradunak hartu zuen hitza, “Barne- zein kanpo- ebaluazioaren garrantzia autonomia-testuinguru batean. Estoniako adibidea” izeneko hitzaldia eskaintzeko.

Horren ondoren, Irlandako PÁDRAIG MAC FHLANNCHADHA eta MIRIAM HORGAN hezkuntza-ikuskariak euren ikastetxeetako barne- zein kanpo-ebaluazioari buruzko esperientzia aurkeztu zizuten.

Ostegunean, HELDER GUERREIROK, Portugaleko hezkuntza-ikuskaria eta Europako Hezkuntza Sistemako ikuskari nazionala denak eman zion goizeko jardunaldiari amaiera, eta kanpo-ebaluazioak ikastetxearen autoebaluaziorako duen garrantziaz hitz egin zigan.

Eguna goizean entzundakoari buruzko zenbait gogoeta eginez amaitu zen. Hona hemen horietako batzuk:

- ⇒ Zenbait herrialdeetako ikastetxeek euren barne-antolaketa kudeatzeko duten autonomia handia.
- ⇒ Pate hartu duten hiru herrialdeetan oso orokortuta dago ikastetxeetako barne zein kanpo-ebaluazioa. Ebaluazio horretan laguntzeko zenbait material argitaratu da, eta ebaluatzaileek bere lana garatzeko prestakuntza berezia jasotzen dute.
- ⇒ Ohiko jarduera da gurasoei zein ikasleei ikastetxean ematen den irakaskuntzaren kalitateari buruz galdetzea, elkarriketa edo galdera-sorten bidez .
- ⇒ Ikastetxeak etengabe ebaluazioak egiten ari dira. azterketa eta eta hausnarketaren ondoren aukera bat egiten da, eta, horren ondorioz, erabakiak hartzen dira. Gakoa “ebaluazio informal” horiek jarduera formal eta sistematiko bihurtzean datza.
- ⇒ Ebaluazioak ez du izan behar soilik ikastetxeko zuzendaritzaren ardura; aldiz, hezkuntza-komunitate osoak parte hartu behar du prozesu horretan.
- ⇒ Ebaluazioa etengabeko prozesua da. Uste faltsua da, prozesu bat ebaluatu ondoren, haren emaitzak betirako balioko dutela uste izatea. Ebaluazioa diseinatzean kontuan hartu behar dira hezkuntza-komunitatearen premiak, eta argi izan behar da zein izango den haren helburua eta erabilera.
- ⇒ Ikastetxe bat ebaluatzeak edo ikastetxeak berak autoebaluazioa egite hutsak ez du esan nahi automatikoki hobetzen hasiko denik.
- ⇒ Ikastetxeek hobekuntza esanguratsuak lortzekotan, gai izan behar dugu emaitza txarren arrazoiak ezagutzeaz gain, arrazoi horietan dugun eragina aitortzeko.
- ⇒ Askotan ikastetxeak ez dira ohartzen eskaintzen duten irakaskuntza hobetzeko egiten duten lan itzelaz. Are gehiago, nola lor ditzaketen hobekuntzak jakinarazten zaienean, defentsa-jarrera hartzen dute, euren jarduera arrazoituz, ohartu gabe jarrera horrekin aldaketa eta hobekuntza eragozten dutela.
- ⇒ Oso zaila da iraunkortasuna lortzea ikastetxeetako autoebaluazio-prozesuetan. Prozesu horien jarraipena ez dago bermatuta.



- ⇒ Ikastetxeetan ezarri diren zenbait errutina aldatu nahi badugu, banan-banan hasi beharko dugu aldatzen, geu, ikuskaritza, barne garelarik. Gai izan behar dugu autokritika eraikitzailea egin, desberdintasuna eta aniztasuna onartu, geure uste eta ezagutzak aztertu eta erabiltzen ditugun baliabideak modu objektiboan aztertzeko.
- ⇒ Ebaluazio on bat gauzatzeko, garrantzitsua da ebidentzia esanguratsuak biltzea, baina , era berean, funtsezkoa da ikastetxeekin hitz egitea, ebidentzia horiei buruzko euren interpretazioa ezagutzeko.

Bigarren eguna, ekainak 8, SANDRA COLLINS Zeelanda Berriko Hezkuntza Ebaluazio Saileko hezkuntza-ebaluatzaile nagusiak ireki zuen, eta bere herrialdean egiten diren ebaluazio-prozesuei buruz hitz egin zigun, barne- zein kanpo ebaluazioari buruzkoak, alegia.

Jarraian, Londreseko *UCL Institute of Education*-eko MELANIE EHRENEk azterketa konparatibo interesgarri bat aurkeztu zigun, Europako ikuskaritzek ikastetxeen ebaluazio-prozesuak egiteko dituzten moduei buruz.

Ondoren, hizlari guztiek osaturiko mahai-inguru bat eratu zuten. Eguna Maite Alonso Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko sailburuordearen hitzaldiarekin amaitu zen.

Hitzaldietako testuak zein solasaldietako grabazioak eta mahai-inguruetan erabilitako powerpoint-ak Ikuskaritzaren “R” karpetan ikus daitezke (R-EMINSPECCIÓN-LANTALDEAK-KANPO EKIMENA). Laster eskuratu ahal izango dira Ikuskaritzaren kanpoko webgunean ere (ikusi buletinaren amaieran).




3- PRESTAKUNTZA JARDUNALDIEN BALORAZIOA

Jardunaldietara bertaratu diren 41 lagunen balorazioa positiboa izan da.


KRISTIN HOLLO. Estonia	Barne- zein kanpo-ebaluazioaren garrantzia, autonomia testuinguru batean. Estoniako adibidea.	5,4
MELANIE EHREN	Aldaketarako ikuskapena eta autoebaluazioa; ikuskapenak eta ebaluazioak hobekuntzara bideratzen gaituzte?	5,9
HELDER GUERREIRO Portugal	Kanpo-ebaluazioak ikastetxearen autoebaluaziorako duen garrantzia.	6,2
Herrialde guztietako parte-hartzaileen mahai-ingurua.		6,2
Prestakuntza beharretara egokitzea eta horren onura (2 egun)		6,5
MIRIAM HORGAN, PÁDRAIG MAC.... Irlanda:	Irlandan eginiko ikastetxeen ebaluaziorari buruzko esperientziak	6,6
SANDRA COLLINS. Zeelanda Berria:	Ikastetxeen barne- zein kanpo-ebaluazioa, Zeelanda Berriko ikuspuntua.	7,1
Oro har jardunaldia		8,1
Antolaketa (2 egun)		8,3

Hona hemen oro har balioespen aipagarrienak:

- ◇ **Oso ona! (2)**
- ◇ **Beste esperientzi batzuen ezagutza. Gure lanean ez gabiltzala oker ikustea**
- ◇ **Muy interesantes las aportaciones de los ponentes y muy importante el poder haber tenido la opción de ver y entender el ejercicio de la función de inspección en otros países.**
- ◇ **Toma de contacto con otras inspecciones educativas para contrastar el tema de la evaluación docente/centros/equipos directivos. Muy interesante para aprender otras formas de hacerlo y para tomar consciencia de que lo que estamos haciendo va por buen camino.**
- ◇ **Gaia eta orokorrean egindako lana. Prestakuntza positiboa izan da. Antolakuntza**
- ◇ **Gran complejidad organizativa. Excelente.**
- ◇ **La posibilidad de conocer otros sistemas educativos.**
- ◇ **Beste herrialde batzuetan egiten direnak ezagutzea beti da positiboa.**
- ◇ **Ebaluazioaren gaia ikuskaritzaren erronketariko bat izanik, oso positibotzat baloratzen dut horrelako jardunaldiak antolatzea bera.**
- ◇ **La calidad de los conferenciantes.**
- ◇ **La variedad de sistemas y países.**
- ◇ **El reparto previo de información.**
- ◇ **La amplia asistencia de inspectores.**



- ◇ Jokabide ezberdinek gure hobetzen lagundu digute. Esaterako garbi xamar geratu da ikasgelara bisita ezinbestekoa dela, benetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren gaineko ebaluazioan datu fidagarriak jaso nahi baditugu
- ◇ Kontzientziazteko baliogarria, beste lurraldeetan egiten denaz jakiteko aukera
- ◇ Hizlarien maila profesionala eta azaltzeko gaitasuna. Nazio arteko egoerak ezagutzeko parada izatea
- ◇ Conocer los modos en los que otras inspecciones evalúan los centros.
- ◇ Ideia txukunak jaso dira, indarrean jar ditzakegunak (Rosak egindako laburpena izan daiteke ideia horien bilduma). Beste batzuk, berriz, indarrean jarriak daudenak gure ikuskaritzan; beraz, gure jardueraren ebaluazio positibotzat har daitezke; gauzak txukun egiten ari garela, alegia.
- ◇ Beste herrialdetan egiten dena ezagutzeko eta ideiarik hartzeko aukera izatea. Konturatu nintzen guk ere asko dugula "irakasteko", hemen ia urtero egiten dugu, edo saiatzen dugu, ikastetxeak barne ebaluazioa egin dezatela saiatzea, Ikasturte amaierako Memoriari ematen diegun garrantzia dela eta. Gure txonten "potoloak" errebisatu beharra dugula atera nuen ondorio, beste batzuen artean, bai eta prozesu hauel poliki poliki eta helburu argiekin jarri behar direla martxan.
- ◇ Antolaketa ona izan zen. Gure lanean gaiak ezagutu, aztertu eta hausnartzeko aukerak izatea oso ona dela iruditzen zait.
- ◇ Gaia gaurkotasun handiko gaia da eta oso garrantzitsua.
- ◇ Ikuskari guztiok elkarrekin egotea, mezu bera entzutea. Beste tokietan zer egiten denataz jabetzea.



Eta hobetzeko proposamen gisa:

- ⇒ *Zonaldeka hausnarketa egin beharko genuke. (2)*
- ⇒ *Kasu praktikoen ikuspegia landu*
- ⇒ *Teniendo en cuenta que estas fechas son fechas con mucha carga de trabajo en el departamento de inspección, hubiese sido conveniente hacer estas jornadas en otro mes del año.*
- ⇒ *Bi egun gehiegi ikusten dut.*
- ⇒ *Disponibilidad de materiales previamente al congreso.*
- ⇒ *Han sido muchas horas meramente expositivas, oyendo traducción simultánea. Se ha hecho pesado.*
- ⇒ *Euskararen presentzia oso eskasa izan da; alderdi hau gehiago zaindu beharko litzatekeela iruditzen zait.*
- ⇒ *Hitzaldien metodologia da ohikoena horrelakoetan eta, hizlari eta ordu kopurua kontuan hartuta, zaila da ziur aski beste modu batean antolatzea. Iruditzen zait, ordea, beste aukera metodologikoak aztertu beharko liratekeela.*
- ⇒ *Fomentar la preparación previa de las reuniones por parte de los asistentes.*
- ⇒ *Aseguramiento de que la documentación previa es leída por los asistentes.*
- ⇒ *Introducción de tiempos y espacios más informales para poder tener acceso informal a los ponentes.*
- ⇒ *Propiciar un tiempo para cambio de impresiones entre los inspectores de zona para ver en qué medida lo expuesto en la sesión puede mejorar nuestra intervención en centros.*
- ⇒ *Y la eliminación del uso del plástico de único uso en la mesa de los ponentes (hubo momentos en los que había 11 botellas de plástico sobre la mesa). Propongo utilizar vasos, jarras y botellas de vidrio.*
- ⇒ *Era honetako jardunaldietan kafearen inguruan sortzen diren eztabaidak aprobetxatu aldera atsedendialdiak era bateratuan egitea.*
- ⇒ *Ponenteek aspektu orokorrak azaldu dituzte baina ez dituzte azaldu haien eredu konkretuak, erabiltzen dituzten indikadoreak, erremintak, fitxak, etabar*
- ⇒ *No es una actividad para la Inspección. Sí lo sería la participación en el diseño de la evaluación de centros. A quien hay que motivar es a las direcciones de los centros y a la comunidad educativa.*
- ⇒ *Ekainean izatea akats handia izan da. Orain ez dugu astirik izango hausnarketa egiteko, eta bi egun horiek eguneroko lana (ikasturte amaierakoa) aurrera ateratzeko behar genituen, edo gutxienez nik bai behar nituen.*
- ⇒ *Itzulpengintza, batez ere euskarara*

Kanpo ekimeneko taldeak eskerrak eman nahi dizkizue inkesta betetzeari minutu batzuk eskaini izana. Zuen iritziak eta iruzkinak oso lagungarriak izan dira.



4- HURRENGO JARDUERAK

ZUZENDARITZA ETA IRAKASLE FUNTZIOEN EBALUAZIORI BURUZKO EMAITZAK EUROPA OSOAN HEDATZEA (ERASMUS+ EOSLATP)

Euskal Herriko hezkuntza Ikuskaritzak bi urtez behin egiten den izen handiko EERA: Irakas-sistema Ikertzeko Europako Elkarte (European Education Research Association) izeneko biltzarrean txosten bat aurkeztuko du.

Biltzar hau irailaren 4tik 7ra egingo da, Bolzanon (Italia). Espero da, bertan, ingelesez aurkeztu eta 30 eduki-multzotan banatuta egongo diren 2000 txosten, informazio-taula eta sinposio baino gehiagoren inguruan, 6000 parte-hartzaitetik gora bertaratzea. Hona hemen aipagarrienak: Balorazioa, Ebaluazioa, Azterketa eta Neurketa (Evaluation, assesment, Testing and Measurement).

Gizabanako, lider eta erakundeen lanbide-garapena (Continuing Professional Development: Learning for Individuals, Leaders, and Organisations)

Hezkuntzaren kalitatea eta hobekuntza (Educational Improvement and Quality Assurance)

Euskal herriaren txostena EOSLATP webgunearen hedapenaren eta 2015tik 2017ra bitartean sorturiko hiru produktu intelektualen nazioarteko aurkezpenaren inguruan egituratuko da:

- ◇ Zuzendaritza-funtzioari buruzko Europako Gida.
- ◇ Irakaskuntza-funtzioari buruzko Europako Gida.
- ◇ Lineako ikastaroa (Moodle), irakaskuntza-funtzioaren ebaluatzaileak prestatzeko.

Denok dakizuenez, aipaturiko produktu horiek EOSLATP proiektuaren Komite Zientifikoak sortu ditu, zeina Euskal Herriko Ikuskaritzak koordinatzen duen eta Italia, Portugal, Errumania, Lituania, Ingalaterra, Zipre eta Euskal Herriko hezkuntza-ikuskaritza, ebaluazio-agentzia eta unibertsitateek osatzen duten.

Petros Pashiardis ebaluazio eta kalitatean adituak koordinatuko du txostena; sinposio-formatuan eratuta dago, eta Cumbriako (Ingalaterra) Unibertsitateko eta Bolzanoko (Italia) Ebaluazio Agentziako ordezkariak hartuko dute bertan parte.

SICI: CONFERENCE AND GENERAL ASSEMBLY (EFFECTS AND SIDE EFFECTS OF EXTERNAL EVALUATION - AN OVERVIEW OF DIFFERENT PERSPECTIVES)

Belgrade, Serbia 15 - 16 November 2018

SICIren batzar orokorra (kanpo-ebaluazioaren ondorio zuzenak eta zeharkakoak. Hainbat ikuspuntuen egoera). Belgrad, Serbia 2018ko azaroaren 15a eta 16a.

Euskal Herriko Hezkuntza Ikuskaritzak parte hartuko du ekitaldi horretan SICIko kide gisa. Biltzar horretan, eskola-komunitatean ikuskaritzek duten eraginari buruz urtean eginiko lanaren ondorioak aurkeztuko dira.

5- KONTAKTUA

Hona hemen KANPO EKIMENeko webgunea:

<http://www.euskadi.eus/informacion/dimension-europea-de-la-inspeccion-en-la-educacion/web01-a2hikus/es/>



Iradokizunen postontzia :
huisg004@euskadi.eus



HURRENGO ALEA:
Bolzanoko jardunaldien edukia.